



**CADEMEK DEITUTAKO LEHIAKETA, PROZEDURA IREKIAZ,
LAGUNTZA TEKNIKORAKO KONTRATU HAU ESLEITZEKO: EAE-KO 8
UDALERRITAN UDAL INSTALAZIOEN ETA ARGITERIA PUBLIKOEN
INGURUKO ENERGIA AZTERKETAK EGITEA**

CADEMEk deitutako lehiaketan, prozedura irekiaz, EAEko 8 udalerritan udal instalazioen eta argiteria publikoen inguruko energia azterketak egiteko kontratua esleitzeko, klausula administratibo berezien pleguko bigarren eta laugarren orrialdean antzemandako akatsak zuzentzeko, hauxe jakinarazten da:

2. orrialdea, dioenean:

A. ZERBITZUA GAUZATZEKO LEKUA ETA EPEA

Lekua: Gipuzkoan daude udalerriak.

Epea: Txosten bakoitza emateko gehieneko epea hiru astekoa izango da, udalerrira egingo den bisita amaitzen den egunetik kontaktzen hasita.

Bisitaren data CADEMEk ezarriko du, udalarekin eta esleipendunarekin adostu ondoren.

Udalerriko bisitaren gehieneko epea bi astekoa izango da (10 lanegun jarraian).

Bisiten egutegia udal langileen prestutasunaren arabera izango da.

Hauxe esan behar du:

A. ZERBITZUA GAUZATZEKO LEKUA ETA EPEA

Lekua: Gipuzkoan daude udalerriak.

Epea: Txosten bakoitza emateko gehieneko epea hiru aste naturalekoa izango da, udalerrira egingo den bisita amaitzen den egunetik kontaktzen hasita. 8. zenbakia daraman udalerrria (ikus 8. eranskina) salbuespena izango da; izan ere, lau aste naturaleko epea izango du.

Bisitaren data CADEMEk ezarriko du, udalarekin eta esleipendunarekin adostu ondoren.

Udalerriko bisitaren gehieneko epea bi aste naturalekoa izango da (10 lanegun jarraian).

Bisiten egutegia udal langileen prestutasunaren arabera izango da.



4. orrialdea, dioenean:

3.2 irizpidea: Eskatutako epeei egindako hobekuntzak (5 puntu)

Balioespen lineala, epe laburrena (60 egun) aurkeztuko duen eskaintzari puntuaziorik handiena emango zaio, eta lizitazioaren epea eskaintzen duenari (90 egun) 0 puntu emango zaio.

$$\text{Puntuazioa} = 5 \times \frac{\text{Lizitazio epea (90)} - \text{Balioesteko epea}}{\text{Lizitazio epea (90)} - \text{Gutxieneko epea (60)}}$$

Gehiegizko eskaintzat hartuko da gehienez onartzen den puntuazioa (5 puntu) gaitutuko duena. Kasu horietan, gehienez eman daitekeen puntuazioa emango da.

Hauxe esan behar du:

3.2 irizpidea: Eskatutako epeei egindako hobekuntzak (5 puntu)

Balioespen lineala, epe laburrena (2 aste natural) aurkeztuko duen eskaintzari puntuaziorik handiena emango zaio, eta lizitazioaren epea eskaintzen duenari (3 aste natural) 0 puntu emango zaio.

$$\text{Puntuazioa} = 5 \times \frac{\text{Lizitazio epea (3)} - \text{Balioesteko epea}}{\text{Lizitazio epea (3)} - \text{Gutxieneko epea (2)}}$$

Gehiegizko eskaintzat hartuko da gehienez onartzen den puntuazioa (5 puntu) gaitutuko duena. Kasu horietan, gehienez eman daitekeen puntuazioa emango da.

Irizpide horrek (3.2 irizpidea) udalerrri guztiei eragiten die. 8. zenbakia daraman udalerrria (ikus 8. eranskina) salbuespena izango da; izan ere, J atalean azaltzen da gauzatzeko gutxieneko epea, eta ez da laburtzeko eskaririk onartuko.

Bilbon, 2010eko ekainaren 10ean.